

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA**15/2019 Foru Agindua, uztailearen 22koa, zeinaren bidez baimentzen baita María Jesús Mansilla Delgado Oiongo Udaleko behin-behineko idazkari lanposturako izendatzea**

Oiongo Udalak jakinarazi dio atal honi behin-behineko izendapen horren beharra duela, Alfredo Sastre de Abajo udal idazkaria ordezkatzeko hura oporretan dagoen bitartean.

Hortaz, korporazio horretako funtzionario María Jesús Mansilla Delgadoren behin-behineko izendapena proposatzen du, zeina Enpresa Zuzendaritzan lizentziaduna baita.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Jesús Mansilla Delgado Oiongo Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan 2019ko uztailearen 22tik abuztuaren 2ra (biak barne), titularrak ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bako bako ez du indarririk.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Oiongo Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko uztailearen 22a

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SÁENZ